



Unai Otaño Euskal Herriko Txapelketan bigarren

NEREA AMILIBIA ▶
KORRIKALARIA

«Anglirukoa
egin dudan
gogorrena
izan da»

Zizurkildarrak lehen
postua lortu zuen ▶ 4

IBARRA ▶ Floren Nazabal izan zen jaun eta jabe herenegun Donezteben izandako lehian

MAILA BIKAINA ▶ Ibarako aizkolaria emaitza ezin hobekak ari da lortzen aurtengo denboraldian ▶ 6

Adiskidetasunaren Txapelketa Euskal Herriko selekzioak irabazi du

TOLOSA ▶ Andaluziako selekzioari 3 eta 2 irabazi zieten, herenegun jokaturiko finalean; hirugarren Extremadura sailkatu zen ▶ 2

ANDER OTEZABAL



TOMAS PLAZAOLA ▶
ORENDAINGO ALKATEA

«Lo egiteko leku bilakatzen ari dira herri txikiak; baina, bizirik gabeak»

Ibiur proiektuko sustatzaileetako bat da Tomas Plazaola, Orendaingo alkatea ▶ 3

Tomas Plazaola. N.URBIZU

ASTEASU ▶

Askotariko gaiak jorratuko dituzte aurtengo Kultur Jardunaldietan ▶ 4

TOLOSALDEA ▶

AHTren proiektuaren inguruan adierazpen bateratua adostu dute

Hainbat alkatek, kontzejuetako ordezkariak eta hautetsiak egin dute ▶ 5



“Natura bezain eraginkorra”

TOLOSA MOTOR, S.A.
San Esteban auzoa, 14-A
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Tel.: 943 65 03 37 Faxa: 943 65 29 38
tolosa@tolosa.redpeugeot.com

PEUGEOT 308 berria



SASKIBALOIA ▶

Denboraldiko lehen porrota Errioxan jaso du Aralarrek

ERREDAKZIOA

Denboraldiko lehen porrota iritsi zen pasa den larunbatean Tolosa-Aralarrekoentzat, Logroño aldean. Partida nahiko parekatua joan bazen ere urdinak garaipenik lortu gabe itzuli ziren etxera, 61-55eko emaitzarekin galduaz. Gainera, baja garrantzitsua izan zituzten.

Partidaren etorkizuna lehen laurdenean erabakita geratu zen. Izan ere, lehen zortzi minutuetan tolosarrek 3 puntu soilik erdietsi zituzten. Etxekoak ere ez zebiltzan oso fin baina, hala ere, lehen laurdenean 21 puntu sartze-ira iritsi ziren. Gonzik azken segunduan 7 metrotatik sartutako hiruko batekin amaitu zen. Atsedendiaren ostean, gogor saiatu ziren, baina ezi-nezkoa izan zen.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))
Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
▶ **Orendain.** Medikua: 655595
▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**
▶ Anbulatorioa, larriald.: 461111
▶ San Esteban: 006800
▶ Gernikako arbola: 006900
▶ Amaroako dispen.: 672637
▶ Asunzion Klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536
▶ **Gurutze Gorria:** 674888
▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

Garrarioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02
▶ Donostiako autobusa: 361740
▶ Tolosaldea bus: 650621
▶ Leitzarzan autob.: 948 221015
▶ Taxia: 670420
▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820
▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
▶ Tolargi: 650016
▶ Iurraremendi egoitza: 670325
▶ Tolosa gasa: 675320

KIROLAK ▶

Euskal Herria izan da garaile Adiskidetasun Txapelketan

12 selekzio aritu dira Peña Blaugrana Tolosarrak antolatutako ekimenean

ESTI EZEIZA

Euskal Herriko selekzioak irabazi du Peña Blaugrana Tolosarrak antolatutako Adiskidetasunaren Txapelketa. Herenegun, Andaluzia eta Euskal Herriko selekzioek jokatu zuten garaile, etxekoak izan ziren garaile, 3-2ko emaitzarekin.

Txapelketako azken egunean, lehendabizi, 3 eta 4. postuak erabakitzeko partida jokatu zuten Usabal kiroldegian. Hemen, Galizia eta Extremadurakoak aritu ziren elkarren kontra, bigarren hauek irabazi zutelarik. Finala, Andaluzia eta Euskal Herriaren artekoa izan zen. Norgehiagoka parekatua izan zen, lehendabiziko zatia 2-1, kanpokoak irabazten zihozazela amaitu zuten. Baina aldagaeletatik itzultzean partidari buelta ematea lortu zuten euskaldunek.

Norgehiagokak amaitu eta gero, txapelketan parte hartu zuten 12 selekzioetako jokalariek zelaia atera ziren ikuslearen aurrean jartzeko. Ondoren,

SAILKAPENA ▶

1. Euskal Herria.
2. Andaluzia.
3. Extremadura.
4. Galizia.

Jokalarionen.

Sara Hawari (Palestina).

Atezain onena. Marokokoa.

Selekzio jatorrena. Senegal.

sari banaketa hasi zen. Lehendabizi, txapelketan parte hartu zuen emakume bakarrari, Palestinako Sara Hawari, jokalarionen saria eman zioten. Jarraian, Marokoko atezainari, atezain onenarena. Azkenik, Senegal, talde jatorrenaren saria eman zioten.

Sari berezi horiek banatu ondoren, txapelketan, lehen postuetan geratu zirenen txanda izan zen, laugarrenetik hasi eta irabazlerarte. Jardunaldia amaitu ondoren Adiskidetasun Txapelketan parte hartutako jokalariek guztiak sagardotegira bazkaltzera joan ziren.



Euskal Herriko eta Andaluziako selekzioen arteko finaleko irudia. A. O.



Palestinako Sara Hawarik, jokalarionenaren saria irabazi zuen. A. O.

AISIA ▶

Asteburu mugituaren ondoren, ohikotasunera itzuli da berriz, Berazubi

Auzotar gehienek hartu dute parte jaietan; antolatzaileak «gustura» agertu dira

E. EZEIZA

Lau egunetako festa eta parandraren ondoren, normaltasunera itzuli dira berriz Berazubi auzokoak. Herenegun, adinekoen hamaiketakoarekin bukatu ziren festak. Orokorrean gustura agertu dira antolatzaileak, «egunero ibili baita jendea, eta auzotarrek parte hartu dute ekitaldi guztietan».

Bakarrizketa saioak, kontzertuak, ipuin kontalariak, bazkariak... izan dira egun hauetan. Igande goizean, hau da azken egunean, dultzaineroak kaleak alaitzen ibiltzeaz gain, auzo-toka ere izan zen. Hala, larunbatean gizonzkoak

aritu baziren, herenegun emakumeen txanda izan zen. Eguerdian, berriz, emakume, nahiz gizonzkoak bazkarira bildu ziren. 50-60 lagun inguruk hartu zuten parte babarrun jatean. Beranduago, haur guztiak zezen-plazara bideratu ziren, hemen, itxaroten baitziztuzten zezen eta poneyak. Adin guztietako jendearentzako ekitaldiak izan ziren igandean. Izan ere, festei amaiera emateko adinekoentzako luntxa izan zen auzoan.

Aurtengoan, Berazubiko bi gazte lokaletako kideak arduratu dira antolaketaz, auzotarren laguntzarekin. Honenbestez, eskerrak eman nahi diz-



Igandean, emakumeen toka txapelketa jokatu zuten. A. OTEZABAL

kiete auzotar guztiei, «denak ere, beharra suertatu den garaian laguntzeko prest agertu baitira, baita inguruko saltoki eta tabernak ere».

Gauean antolatu zituzten ekitaldien artean, bakarrizketa saioa izan zen lehen egunean, Gorka Larizen eskutik. Honek «arrakasta handia» izan zuela azaldu dute antolatzaileek, eta gazte lokaletako kideek hurrengo urteetan ere errepika-

tzeko asmoa dutela adierazi dute. Bestalde, ohikoa den berazubi gazte gehien gaueko kontzertuetan bildu zen Berazubi auzoan. Homo Demens, Desordutan, Gargantas Desgarradas eta Angelays taldeak izan ziren, besteak beste, ostegun eta ostiralean. Herriko taldeak izan zirenez musika emaldiak eskaini zituztenak jende ugari hurbildu zen hauek entzuteratzen.

TOMAS PLAZAOLA ▶ ORENDAINGO ALKATEA

«Herri txikiak lo egiteko leku bihurtzen ari gara; bizirik gabeak

Ibiur proiektuaren sustatzaileetako bat da; aisialdirako leku bilakatuko dute urtegi ingurua, eta urtegia bera

NEREA URBIZU

Orendaingo alkatea da Tomas Plazaola (Legorreta, 1953). 21 urte daramatza Orendainen bizitzeko eta legezaldi bat egin du alkate. Udaltaldea lau zinegotzik eta alkateak osatzen dute: EAE-ANVren zinegotzi bat dago eta besteak Batzar-Leku plataformakoak dira. Harremanak oso onak dira, alkatearen esanetan.

Orendaini ere Ibiur urtegia egokitzeko zaila.

Azken txanpan gaude. Hilabete honetan bilera garrantzitsuak egin behar ditugu; ur kirolak edo ekitaldiak egin nahi ditugu bertan eta guk aurkeztutako hori bideragarria den ala ez erantzun digute dagoeneko. Erantzuna gaitzeko modukoa ez dela izan da, hau da; posible izango litzatekeela. Azken finean, dirua da falta dena.

Proiektu bakarra da aurkeztu duzuen.

Baina gauza aintzak egingo dira. Ibiur urtegiarekin beste hainbat ideia ere etorri zitzaizkigu: urez hornitzeko balioaz gain, aisialdirako balio zezan ere eta aukera hori zegoenez hori proposatu genuen. Pista perimetraleko bidea eta Larraitzeraino dihoana; presatik Larraitzera. Bestalde, Tolosako TAK arraun taldea interesatua dago bertan eskola bat egiteko-edo. Ur azkarren kanala eraikitzeak masak egiten dituen leku hartan ere egin nahi dugu. Arazo, bonbak nork jar-tzea izango litzateke; berriz ere, diru kontuak.

Zel erantzun jaso duzue?

Foru Aldundiari eskatu zitzaion planak egiteko eta ur-kirol horiek in lotutakoak bideragarriak ote ziren ikusteko. Horretarako aholkularitza etxe bat kontratatu zuen (Avento) eta emaitzak aste honetan jakin ditugu. Ekonomikoki posible izango litzatekeela erantzun dute, Kataluniako Sede D'urgellen dagoen prezioen

ereduetan oinarrituz. Batez ere, argindarra da garestiena, ur emariko segundu kubiko bakoitzeko 100 kilowatio behar dira, eta 0,08 euro balio ditu kw-ak. Euskal Herrian ur lasterketekin lotutako 29 klub daude. Bideragarritasuna, esan behar da, ziurtatuagoa dago ibilaldiak eta uretako ekitaldiak, biak batera egiten baldin badira. Bigarren pausoa, dena gauzatzea izango litzateke.

Hau guztia oso garestia izango da.

Bai, baina bideragarria bada... Ikusten duguna da, sor dezakeen merkatu handi bat dagoela: eskolako umeak Bidarraira doaz gaur egun. Ibiurrekin hara joan daitezke, adibidez. Bertan, bizikletan ibili, oinez, rokodromoan ibiltzeko... Erabilera asko izango ditu. Hasiara eman behar zaio orain, edo bestela sekula ez eta hemen-dik abendu bitartera hartu behar dira erabakiak. Hor daude paperak, eta orain dirua behar da.

Zer emango dio honek herriari?

Herriari ez bakarrik, eskualde osoari baizik. Aisialdi leku zoragari bat izango da. Natura da gure kalitateko parametroa, eta beti edukiko duzu Aralar begi bistan, oso leku zoragarria da. Ezingo da motorreko gauzik erabili, baserriarrak ez badira: zuhaitzak ateratzeko, lursailen batera joateko edo lanerako. Gehienbat, Abaltzisketakoe erabiliko lukete, eguneko lanerako beharko bailukete. Hori guztia kontenplatu dago.

Ibiurren egin behar dituzuen gauza guztiak proiektu batean aurkeztu dituzue.

Tolomendik diru laguntza eman zigun. Iñigo Segurola lur paisajistik egin du ordenadorez aurkeztu duguna. Proiektua oso handia da, eta jendeak ez daki oraindik zertan den, edo nolako izango den: ari



N. URBIZU

gara Tolosako alkatearekin batera Ibiur astea-edo antolatua nahian, baina oraindik ez dugunez ezer ziurra, ezin dugu egin. Beraz, borondatea bada; orain, dirua da falta dena. Elkarlanean ari gara. Kargu al-tuetakoei asko gustatu zitzaizen aurkeztutakoa eta ideia. Foru Aldundiak eta proiektu hau egiteko Tolomendik diru bat eman zuen; Tolomendiren bidez lehiaketa bat egin zen eta lur paisajistik, Iñigo Segurolak egin zuen. Uretako proiektuekin ere, Foru Aldundiak bideragarria izan zedin azterketa bat egin zuen.

Uretan arazorik izan dezakete?

Arazo txiki bat badugu; muskuilu batekin, zebra muskuiluarekin delakoarekin. Ur hornitzaileek ez dute nahi urtegi-tan eta erreketan inongo aktibitate egitea, baina arazoa dagoela ikusi arren, elkarbizitza egitea posible dela uste dut. Bertako txalupak eta tresneria bakarrik erabiltzea uretan, eta ez sartu beste inongo lekuetarik. Hala ere, desinfektatzeko puntu bat beharko litzateke. Gure proposamena da bertan dauden txalupak bakarrik ibiltzea. Kongsiente gara arazo horretaz, eta Tolosaldeak behar duen arraun eskola hori kokatzeko behar dela ere: Ibiur egokia da arraunean aritzeko, lura eta estua delako.

Etxebizitzekin zer?

Oraindik aztertzen ari gara. Herri txikiak lo egiteko leku

bihurtzen ari gara, baina bizirik gabe eta gainera herri handi-agoetan bere etxebizitza egin ezin dezaketenez herri txiki-tara jotzen dute. Oso politikak gelditzen dira herriak, baina bizirik gabe. Egin dugun urbanizazioan batzuk integratu dira, baina beste zenbait etxetan ez dakigu zein bizi den oraindik.

Zel asmo dituzue Kalea baserriarekin?

Aztertze gai bat da. Beste 4.000 metro daude Kalea baserrian. Baserri honek arazoak besterik ez dizkigu ematen orain, oso eraikin zaharra da, sarbideak ere zailak ditu eta Foru Aldundiari iruditu zitzaion egokiagoa zela herri-arekin eguneko zentroa egitea Eskolapioetako eraikinean; komenigarria izango zela, baina bailara guztiarentzat. Eraikin zahar honetan 19 etxebizitza, gehi 400 metro enpresa berri-arentzat, gehi 200 metro eguneko zentroa egiteko izango lirateke. Zerbitzu gehiago ere eman nahi genituzke: 3. adinekoentzat podologoaren zerbitzua, ileapaindegia, pilulen banaketa, bazkariak...

Zer dago orain Kalean?

Apartamentu tutelarra da Kalea baserria gaur egun. Horri bultzada bat eman behar zaio eta ikusi zer egin daitekeen eremu horretan.

Beraz, etxebizitzak bakarrik ez.

Ez. Lursail batzuk dauzkagu, dena ez da etxebizitza, eta zer-

bait egin behar da herritarrak bertan gelditzeko. Zer bait gehiago egin behar da kalitatea eskainiz. Gaur egun etxean lan egiten duen jendea badago komunikazioen bidez. Horrela-ko zer bait posible balitz egokia litzateke.

Zer egin duzue azken lau urteetan?

Ur sare paralelo bat egin dugu baserriarentzat. Ibiur bukatzean Orendaingo beheko biltegitik goiko biltegi-ara eta handik bonbeatzen zen. Handik herrira etorri eta ura ekartzen zen behetik gora. Orain, beheko aldera doan hodia ikaztegi-tak erabiltzen du. Ibiur egin ondoren, Orendainek beheko ur hori biltegi berrira eraman eta handik nekazaritzarako joango litzateke. Ibiur bukatuta, ikaztegi-tak zuzenean hartuko du ura. Biltegia eta sarea egin da daude. Honetan ere Tolomendik lagundu digu. Eliza ere eraberritu dugu kanpotik (600.000 euro kostatu da) eta aurki udaletzeko teilatua konponduko dugu. Horrez gain, Udalsare 21ean sartuta gaude. Herri-arekin lotuago dauden artean?

Topagunearrekin ari gara lanean, adineko jendearentzat. Bertan biltzen dira eta ekintza asko egiten dituzte elkarrekin. Bezeroek handitu dute zerbitzu hau. Haurtzaindegian 8 ume daude eta beste herrietatik ere datoz. Herri txiki-tan baliabide gutxi ditugu, eta hauek konpartitzea da gure filosofia.

ASTEASU ▶ KULTURA

Gai anitzak aurtengo Kultur Jardunaldietan

Irrintziren 'Zuk, zuk jaunaren alfabeto berria' obrarekin hasiko dira etzi

ERREDAKZIOA

Asteasuko Kultur Jardunaldiak etzi hasiko dira haurrentzako antzerki emanaldi batekin. Irrintzi taldeak *Zuk, zuk jaunaren alfabeto berria* obra taularatu du udaletxeko zine aretoan. Aurtengo Kultur Jardunaldiek gai anitzak jorratzen dituzte. Antzerkiarekin hasi eta musika kontzertuarekin, proiektio eta solasaldiarekin, dantza emanaldiarekin jarraitu eta argazki rallyarekin amaituko dira. Aste honetan zein hurrengoan izango dira ekitaldiak.

Kontzertua Zarauzko O'liden's bandek emango du. Adin guztientzako emanaldia izango da. Banda klasiko baten instrumentuekin, musika klasikoa eta egungoa umorearekin uztartzen dituzte.

Bestalde, Sahara gai hartuta, *Lalia* film laburra emango dute eta ondoren Said Beddouzekin solasean aritzeko aukera izango dute. Ondoren, tea probatzeko aukera izango dute emanaldira joaten direnek.

Dantzari dagokionez, Villabonako Oinkari dantza taldeak *Aspaldikotik* ikuskizuna

EGITARAUA ▶

URRIAK 17, BIHAR

18:30. Irrintzi Taldearen *Zuk, zuk jaunaren alfabeto berria* haurrentzako antzerkia, udaletxeko zine aretoan.

URRIAK 20, LARUNBATA

22:30. O'liden's band taldearen kontzertua Iturri-Ondo jatetxean.

URRIAK 24, ASTEAZKENA

20:00. Sahararen inguruko proiektzioa eta solasaldia, Kultur Etxean.

URRIAK 26, OSTIRALA

22:30. Oinkari taldearen *Aspaldikotik* dantza emanaldia, frontoian.

URRIAK 27, LARUNBATA

09:00-13:00. Asteasuko I. Argazki Rallya. Kultur Etxean hasiko da.

emango du. Billabonatarrek prestatu duten azken ikuskizuna da. Kultur Jardunaldiak amaitzeko, Asteasuko I. Argazki Rallya antolatu dute, kamera digital zein analogikoentzat.

NEREA AMILIBIA ▶ KORRIKALARIA

«Egin dudan gogorrena izan da»

Angliruko igoera irabazi du Nerea Amilibia zizurkildarrak

IMANOL GARCIA

Nerea Amilibiak (Zizurkil, 1971) bere garaipenaren zerrendan Asturiaseko (Espainia) Angliruko igoera gaineratu berri du. 13 kilometroko ibilbidetan 1.266 metro igotzen dituzte korrikalariak.

Espero zenuen irabaztea?

Ez. Proba ikusteko asmotan joan nintzen, Zarauzko bi lagunekin. Ez nuen ezer ezagutzen. Bezperan ikusi genuen eta makina bat buelta eman nituen gero ohean, hori igotzeko gai izango ote nintzen nire buruari galdetzen.

Eta zer iruditut zitaizun?

Polita bai, baina oso gogorra. Egin dudan probarik gogorrena izan da. Asfaltoan zoaz, baina izugarriko maldak zituen ibilbideak. Azkeneko zazpi kilometroak ikaragarriak ziren. Hasi lehenengo kilometroan eta beti igotzen eta igotzen zoaz. Badago bosgarren kilo-



LA NUEVA ESPAÑA

metroan atsedelaldi txiki bat, baina hortik aurrera dena al-dapan gora da.

Eta hain gogorra denean, nola eusten diozu korrika egiteari?

Pixka bat lasai hasi nintzen eta uste baino gehiago igo nuen korrika. Gero malda gogorrenak bizi-bizi oinez igo nituen. Uste baino gehiago igo nuen korrika.

Gorputza ez ezik, burua ere ondo izan behar duzu horrelako proba batean.

Bai, ondo egon behar duzu. Egoskor samarrak gara eta... Proban ez nuen behin ere pentsatu bertan behera utziko nuenik.

Noliz ikusi zenuen irabazteko aukera zenuela?

Hasieran Madrilgo bat aterazen oso indartsu nire aurretik. Ni nere erritorea joan nintzen. Pentsatzen nuen bigarren nihoala, baina lau kilometroren faltan, lehenengoa nintzela esan zidaten. Ez dakit non pasa nuen madrildarra. Gero laugarren bukatu zuen berak. Lehenengoa nihoala jakinik, oso gustura aritu nintzen bukaeran. ◀

TOLOSA ▶ FUTBOLA

Hirugarren Mailako taldeak bana berdindu du Portugaleteren aurka

ERREDAKZIOA

Tolosa CFko taldeek hiru garaipen, berdinketa bat eta hiru porrot erdietsi dituzte. Hirugarren Mailakoek bana berdindu zuten Portugaleteren aurka etxean eta hamaseigarren postuan jarraitzen dute, 6 pun-

turekin. Emakumezkoen hirugarren mailakoek 9-0 irabazi zioten Ekintza taldeari. Jubenilen Ohorezko Mailakoek 2-0 galdu zuten Valladoliden aurka. Gipuzkoako jubenilen Ohorezko Mailan Tolosak 0-3 galdu zuten Union Txiki-Touringen aurka.

Kadete mailari dagokionez, Ohorezko Mailan Tolosak 1-8 irabazi zion Beasaini. Lehen Mailakoek atsedena izan zuten. Infantil ohorezko mailan Tolosak 4-0 irabazi zuten Hondarribiaren aurka. Eta Infantil Txikien mailan, Añorga Bren aurka 3-1 galdu zuten.

OSTIRALA
URRIAK 19-20:30
ILLUNBE

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK

Bruesa-GBC / Ford Burgos saskibaloit taldeen arteko partidarako lau sarrera pare zozketatuko ditu!

hitza

Harpidedunen txokoa

Parte hartzeko, deitu zenbaki honetara:
943 65 56 95

Leidorren Urriak 20, larunbata 20:00etan izango den **Benito Lertxundiren** kontzerturako sarrerak zozketatuko ditugu ere!

zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea

AHT ▶



AHTren inguruko informazioa eta hitzaldiak antolatuko dituzte hainbat udalek, tartean Anoetak. N. URBIZU

AHTren proiektuaren inguruan adierazpen bateratua egin dute

Hainbat alkate, kontzeju ordezkari eta hautetsi AHTren aurka agertu ziren

ERREDAKZIOA

Eskualdeko 6 udaletako ordezkariak eta ordezkari ohiak AHT Proiektuaren aurkako jarrera agertu berri dute Elorrioren eguneko ekitaldian. Horretarako arrazoiak ere adierazi dituzte. Halaber, Eusko Jaurlaritzako eta Nafarroako Gobernuak Gerraio eta Herri Lan Sailei nahiz Espainiako eta Frantziako Sustapen ministroei proiektuaren aurkako jarrera helarazi zieten.

Hauek dira eman dituzten arrazoiak: «Proiektu hau ez dago Euskal Herriaren ikuspegitik pentsatuta, eta ondorioz ez du gure lurraldea batere kohesionatu eta egituratzen». AHT egingo balitz «inpaktu ekologiko itzela eragiteaz gain, eragin oso bortitza izango du bai gizarte eremuan, baita lurralde egituraren eta ekonomian ere». Hirugarrenik, «inpektuek etorkizuneko belaunaldien bizkar botako ditugu; baita gastuak eta ondarea bera ere».

Beste arrazoi bat orain arteko informazio ezarekin dago lotuta: «Etorkizuneko Euskal Herriaren egituraren eta gizarte eremuan hain eragin garrantzitsua duen azpiegitura izanik, ez da behar bezalako informazio, eztabaida eta erabakitze

prozesu parte-hartzailerik sustatu».

Azkenik, «udalerriek beiraiek ere baztertuak izan direlako eta egitasmoa beren iritzia eta borondatearen bizkar garratu dutelako» ez daude ados AHT proiektuarekin.

Udalen esku dagoena

Herritarren ordezkari diren heinean, «egitasmo antiekologiko eta antisozial hori gelditu eta aipatu eztabaida eta erabakitze prozesua bultzatzeko» ahalegin guztiak egingo dituztela adierazi dute. Bide horretan, Abiadura Handiko Trenaren «egitasmoaren inposaketa» eta «bereziki horren erakuntza lanak», nahiz haien osagarri diren ekintza guztiak burutu ez daitezkeen «indarrak biltzeko eta eskura ditugun baliabide guztiak erabiltzeko aukera aztertzen ari gara».

Halaber, herritarrek egitasmoaren inguruan «beren hitza adierazi eta borondate hori errespetaratzeko gure esku dagoen guztia» egiteko konpromisoa hartu dute. Adibide gisa, Anoetan abenduaren 2an egingo duten herri kontsulta dago, honela, herritarrei AHTri buruzko iritzia emateko aukera emanez.

IKAZTEGIETA ▶

Aerobic ikastaroan izena emateko aukera

Aerobic ikastaroa antolatuko dute Ikaztegieta. Taldea osatu dute, baina talde handiagoa behar dute. Horregatik, herrikoak bertakoak ez direnek ere izena eman dezakete. Astearte eta ostegunetan izango dira klaseak kiroldegian, 09:30etik 10:30era. Izena udaletxean eman behar da.

AMEZKETA ▶

Yoga ikastaroa gaur hasiko da Zumadi eskolan

Jakinazten da Amezketan gaur hasiko dela yoga ikastaroa. 18:00etatik 19:30era izango da, Zumadi Eskolan. Aurreko ikasturtean bezala, Mari Jose Zubeldiak emango ditu eskolak. Ikastaroa egiteko interesa duenak bertara azaldu beharko du, Zumadi eskolara, hain zuzen.

KULTURA ▶

Altzon eta Ikaztegieta, haur ikuskizunak

Gaur arratsaldean Idoia Sanchez ipuin kontalaria Altzoko liburutegian izango da saioa eskaintzen, 17:00etatik aurrera. Etzi, berriz, Ikaztegieta Kultur errotan, 17:30ean, kiroldegian Irrintzi antzerki taldearen *Zuk zuk Jaunaren alfabetoa* antzerkia izango da. Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuko ditu ekitaldi hauek.

ALEGIA ▶

Kobre-haria lapurtu duten hiru gizonezko atxilotu dituzte

Renfek erabiltzen zuen larunbatean ostutako haria, telefonoetan eraginik izan gabe

ERREDAKZIOA

Larunbat arratsaldean hiru gizonezko atxilotu zituzten Tolosako erizainek Alegia eta Ikaztegieta bitartean, trenbidean, telefono-haria lapurreta egotzita. Susmagarriek kobre-haria lapurtu nahi izan zuten trenbidearen ondoan. Telefono finkoetan ez du eraginik izan, «hari hau kobrea bazen ere, Renfek erabiltzen baitu», Ertzaintzak ezagutzera eman duen moduan. «Ez du katenerian ere eraginik izan».

16:30a aldera erizainak lapurreta izan behar zen aldera joan ziren, Renfeko tren-gidari batek hiru lagun ikusi baitzuten kablea lapurtzen. Ertzainak han zeudela, handik hurbil gazte bat ikusi zuten furgoneta batean, eta artasoro batean izkutatuta, beste bi. Susmagarriek telefono-haria moztu zuten zatika, zizaila baten laguntza, eta furgonetan sartzeko prestatuta zeukaten. Ertzainek identifikazioa eskatu zieten, eta ondoren atxilotu zituzten.

Atxilotuak gazteak dira, 19 eta 24 urte bitartekoak. FVRek (20 urtekoa) eta LUDek (24 urte) aurrekari polizialak dituzte. Bi hauek eta 19 urteko MHRK epailearen aurrean agertu beharko dute. Ertzainek, hala ere, ez dute oraindik Renferren salaketarik jaso.

BIDEGOLAN
INGURUNE EZIN HOBEAN, HERRIGUNEAREN ONDOAN
AURKI ETXE ATXIKIEN ERAIKUNTZAREN AMAIERA

INFORMAZIOA ETA SALMENTAK
ERNIO inmobiliarian 943 30 40 38

KIROLA ▶

Unai Otaño bigarren, Euskal Herriko Aizkolari Txapelketan

Donezteben (Nafarroa) Floren Nazabal izan zen jaun eta jabe; bi minutura Otaño sailkatu zen Lopezen aurretik

ASIER IMAZ

Unai Otaño bigarren postua lortu zuen etzi, Donezteben (Nafarroa) jokatu zen Lehen Mailako Euskal Herriko Aizkolari Txapelketan. Floren Nazabal irabazleak baino 2 minutu eta 8 segundu gehiago behar izan zituen ibartarrak.

Doneztebeko pilotalekua bete egin zen lehen aritu ziren 6 aizkolariak ikusteko. Floren Nazabal, Unai Otaño, Juan Jose Lopez, Joxemari Olasagasti, Txapartegi eta Joxemiel Peñagarikanok lau kana-erdiko, lau 60 ontzako eta lau oinbiko moztu behar izan zituzten. Dirua Nazabalen alde atera zen eta lehen enborretik bere nagusitasuna erakutsi zuen Etxarriko (Nafarroa) aizkolariak, amaieran, 12 enborrak 39:12 minututan moztu zituelarik.

Unai Otañoren denboraldia

Ez du erraz ahaztuko aurtengo aizkolari denboraldi amaiera Unai Otaño. Irailaren 1ean Lehen Mailako Gipuzkoako Txapelketa irabazi zuen Donostian (Gipuzkoa). Askorentzat ezustekoa izan zen ibartarrak erakutsitako maila. Etzi Donezteben argi eta garbi erakutsi zuen Otaño ezustekorik ez zela egon, ez Donostian ezta Donezteben ere. Bere atzetik geratu zen Lopezi ia 50 segundu atera zizkion eta Olasagastiri, 7 minutu.

Orain apusturik atera ezean, atsedean hartzea tokatuko zaio Unai Otañori. Hurrengo denboraldian berriz, belaualdi be-



Unai Otaño itzura ona eman zuen etzi Donezteben. G. GARAIALDE/A. PRESS

rriaren ordezkarri nagusi den ibartarrak, Floren Nazabalen mailara gerturatzea izango du helburu, nahiz eta horiek hitz handiak diren.

Arrospe hilaren 20ean

Urrezko Aizkolari Txapelduen Liga hilaren 20an, larunbatean, jokatu dute Altsasun (Nafarroa). Finala arratsaldeko 18:00etan izango da, eta bertan egongo da Anjel Arrospe

leaburuarra. Aurkari bezala berriz, Floren Nazabal, Donato Larretxea eta Arria V. izango ditu Arrospe de.

SAILKAPENA ▶

1. Nazabal	39:12
2. Otaño	41:20
3. Lopez	42:09
4. Olasagasti	48:07
5. Txapartegi	53:24
6. Peñagarikano	54:48

ZILARREZKO JAURTIKETA ▶ JON ALTUNA

Carpe Diem!



ra ezberdinetako jendea batzearena. Antolatzaileak zoziondu eta honelako egitasmoekin jarraitzea animatu nahi ditut.

Gure partiduari dagokionez, Granada 74 taldea genuen aurkari. Beste talde bati lekua erosi ondoren igo zen iaz bigarren mailara, beraz diru faltarik ez duen taldea da. Diruak talde indartsuak egiten ditu, eta hau horietako bat da nahiz eta oso ondo hasi ez diren.

Baina berriro ere martxa ona hartuta gaudenez, partidua aurrera ateratzea lortu genuen eta honela sailkapenean gure pentsamendu onetan ere uste ez genuen postuan gaude. Liga hasi aurretik askok mailaz jeisteko faboritotzat hartzen gintuen eta orain gauden lekuan egonik harrিতa ere egongo dira. Badakigu oraindik ez dugula ezer egin, baina lagun batek dioen bezala: «carpe diem!» eta horixe ari gara egiten, momentuaz gozatzen. Bigarren mailako aurrekontu txikiena dugu, baliabide gutxienetakoa, baina zorionez dena dirua ez denez, maila ona ematen ari gara. Ea momentu hau denboran asko luzatzen den!

TOLOSA ▶

Joxi eta Joxeani lore eskaintza, gaur 19:30ean

Amnistiaren Aldeko Mugimenduak antolatuta, Joxi eta Joxeani omenaldia egingo diete, gaur 19:30ean, Tolosan. Erailketaren eta bahiketaren 24. urteurrenean, lore eskaintza egingo zaie Benta Handiko beraien omenezko monolitoaren aurrean. Amnistiaren Aldeko Mugimendutik, bertara agertzeko deialdia zabaldu dute.

LIZARTZA ▶

Otaolaren herio-mehatxuen kasua Pedrazen esku

Regina Otaola Lizartzako alkateak, irailaren 7an egindako uesteko herio-mehatxuarengatik, salaketa jarri zuen Tolosako epaitegian. Kasua Audientzia Nazionalako 1 zenbakiko instrukzioko epaitegi zentralari egokitu zaio, Madrilen. Santiago Pedraz epaileak emango du, hain zuzen. Terrorismo delituarekin lotu dute mehatxu hau.

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

LEITZA ▶ FUTBOLA

Lehenengo postuetan da Aurrera azken garaipena eta gero

Larunbatean leitzarrek Paternainen 4-0 irabazi zuten, Iker Bengoetxea, Jon Arangoa eta Antton Urkiolaren golei esker



Aurrerako arduradunek azaldu dutenez, «ez genuen hainbesteko aldearekin irabazterik espero». N. GARZIA

NAIARA GARZIA

Aurrerak larunbatean garaipen garbia lortu zuen Paternaingo Iruña taldearen aurka 4-0 irabazi ondoren. Garaipen honekin leitzarrek beste 3 pun-

tu eskuratu dituzte eta laugarren edo bosgarren postuan daude saiklapenean.

Aurrerako arduradunek azaldu dutenez, «ez genuen hainbesteko aldearekin irabazterik espero. Espero baino

hobekiago atera zitzaigun partida. Haiek guk uste baino okerrago jokatu zuten, eta guk uste baino hobee».

Norgehiagoka larunbatean jokatu zuten, Paternainen. «Haien etxean jokatzea beti go-

gorragoa izaten da», diote arduradunek.

Iker Bengoetxeak sartu zuen lehenengo gola, Jon Arangoak 2 sartu zituen eta Antton Urkiolak beste bat. «Partida erabatean dominatu genuen. Gure atezainak lehenengo zatian baloi bakarra ukitu zuen, ez zituzten, beraz, aukera gehiegi sortu». Leitzarrek 4 gol sartu zituzten arren, arduradunen arabera aukera asko alferrik galdu zituzten. «Lasai 6 edo 7 gol sartu genitzakeen, ez genituen aukera guztiak aprobetxatu».

Aurkarietako dagokionez, partida amaierarako 3 jokalarik kanporatu zituzten. «Beraien artean hika-mikak sortu ziren, ez zeukaten giro ona eta epailearekin ere kexu ziren».

Datorren norgehiagoka

Aurrerak datorren larunbatean jokatu du hurrengo partida. Zangotzako Cantolagua taldearen aurka. Asteburu honetako emaitza kontuan hartu gabe, orain arte 5 partidetatik 2 galdu dituzte, beste 2 berdindu eta bakarra irabazi dute. «Momentuz gu bezalatu doaz. Interneteko foroetan jendeak talde hau nahiko goian ibiliko dela dio. Denboraldi hasieratik behintzat hori diote. Hurrengo larunbatekoa partida gogorra izango dela uste dugu». Halere, indar aldetik Aurrerako jokalariek ezin hobeto daudela adierazi du. «Kementsu gaude, lana emateko asmoz eta gainera etxean jokatzen dugu».

Denboraldia hasi denetik, Aurrerak 3 baja izan dituela adierazi du. «Orain jokalaririk bakarrak jarraitzen du lesionatuta eta ziurrenik urte osoa egingo du jokatu gabe».

TOLOSA ▶

Laskorainek 5-3 galdu du Aierruren aurka, Lezon

Telletxeak sareratu zuen azken gola, 10 metrotako jaurtiketa baten bidez

ERREDAKZIOA

Joan den ostiralean goizeko hamaiketan Lezoko Bekoerrotako kiroldegian horitxoek jokatu zuten etxeko taldeak horrela eskatuta.

Lesioak eta isunak zirela medio, Alonso entrenatzaileak ez zuen lehen taldeko lau partaiderekin kontaktzerik izan norgehiagoka garrantzitsu honi aurre egiteko. Harrobiak bestalde, jokalaririk anitz izan izanik eta beste hainbat alditan bezela, deialdia bermatasunez bete zuen, hori izan daitekeelarik porrot mingarri honen atal positibo aipagarria.

Partiduko lehenengo zatian tolosarrek 3 gol sartu zituzten (Telletxeak 2 eta Saldiasak 1) eta lezotarrek 2. Halere makina bat gol aukera alferrik galdu ziren lezotarren ate inguruan. Telletxeak hirugarren gola 10 metrotara jaurti zuen.

Bigarren zatia oso bestelakoa suertatu zen ordea, horitxoek, partiduaurrekin behar baino lehenago bukatzeko asmo etengabea, etxeko taldearen eskutan utzi zituzten azken 20 minutuetako aukera gardenenak eta konzentrazio falta nabarmen bat, aitzakiarik onartzen ez duen azken emaitza baten errudun (5-3) zuzenak izan zirelarik. Bigarren taldeari dagokionez, 3-2 garaitu zuen Lazkaok, norgehiagoka gogor baten ondoren.

Datorren astean tolosarrak Bizkaiko Jarrilleros taldearen aurka lehiatuko dira.

LEITZA ▶ LAU T'ERDIA

Bengoetxea VI.ak Goñiren aurka jokatu du igandean Mendizabal I.aren aurka irabazi ondoren

Ekaitz Saralegik Xalaren aurka galdu zuen eta lau t'erdiko txapelketatik kanpo gelditu da

N. GARZIA

Oinatz Bengoetxeak Mikel Goñiren aurka jokatu du datorren igandean, Eibarko Astele-na pilotalekuan, lau t'erdia bigarren fasean.

Bengoetxea VI.ak Mendizabal I.aren aurka jokatu zuen larunbatean Labriten. Emaitzari erreparatu gero, Bengoetxea VI.ak aurkariari 16 tanto atera zizkion arren (22-8 amaitu zuten), leitzarrek, eroso ibili zen

arren, partida irabazteko lan egin behar izan zuen.

Saralegi amezketarrak, ordea, ez zuen Xalaren aurka irabazterik izan atzo Astelenan, eta 8 tantorengatik galdu zuen (22-14). Partida osoan zehar Lekuineko pilotaria hobe izan zen arren, amaieran, Amezetakoak Xala estutu zuen, 7 tanto egin baitzituen jarraian, baina Ekaitz Saralegik ez zuen beste tantorik egiterik lortu eta azkenean galdu egin zuen.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. Tolosako Udalak Voith-Gorostidiko etxeen zozketa urriaren 24an egingo dela jakinarazi du. Zer iritzi duzu honen inguruan azken aldia sortu diren zalantzez? Sartu gure webgunean eta eman zure iritzia gai honen inguruan.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Egurra. Sutarako pago egur lehorra salgai. Etxera entregatzen da. 615 75 57 62.

GALDUTAKOAK

Txakurra. Hispanier arrazako bakurkumea aurkitu dute Berastegin. Txuria, belarri marroiekin. 670 43 16 69.

Ribademio Pousoko
Martin J. Iraola 2 - behea
TOLOSA • 943 67 24 48

• Ingelesa
First Certificate, advanced, Proficiency bezalako azterketa ofizialeterako prestakuntza.

• Frantsesa, arabiera, italiara
Maila guztiak • Gaituriko irakasleak

• Errefortzu eskolak
Zientziak eta letarak *adin guztiak Eguneroko jarraipena *talde murriztuak

Tolosan, Berrobin eta Berastegin ematen ditugu eskolak.

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Tolosa. Amnistiaren Aldeko Mugimenduak antolatuta, 19:30ean, Benta Haundiko monolitoan, lore eskaintza egingo dute Joxi eta Joxearen desagerketaren 24. urteurrena dela-eta.

Tolosa. Kubako errealitate gertutik ezagutzeko antolaturiko zinema zikloaren baitan, *Rasgando velos, Video de familia eta Sueño de mujeres* gaur ikusgai, Kultur Etxean, 20:00etatik aurrera.

Aitzo. Idoia Sanchezen ipuiri kontaketa saioa liburutegian 17:00etan, Galtzaundi euskara taldearen eskutik.

Orexa. Uli Mankomunitateak antolatuta, formakuntza ikasgela, 17:00. Ura eta elektrizitatearen kontsumoari eta aurrezpenari buruz hitz egingo dute.

Anoeta. Dantza Soka Eguna urtarrilaren 26an izango da. Prestatzeko bilera gaur egingo dute, udaletxean 19:30ean.

Berastegi. Odol ateratzeak egingo dituzte Muñagorri eskolan, 18:30etik 20:30era. Urte honetan herrian egingo den 3. eta azkeneko saioa izango da.

Tolosa. San Pelaio-Balmaseda (Bizkaia) irteera antolatu du Alpino Uzturre mendi elkarteak igande



La Demandara irteera antolatu du Aizkardik

VILLABONA ▶ Aizkardi mendi elkarteak La Demanda mendizerrara irteera antolatu du igande honetarako. Azarrullatik abiatuko dira, San Lorenzo mendia (2.271 metro) igoko dute eta Ekzarayen bukatuko dute. Guztira, 22 kilometro ingu-

ruko ibilbidea egingo dute, eta sei ordu eta erdiko denboran egitea pentsatzen dute gutxi gorabehera. Animatzen direnek 943 69 44 58 (Joxan) telefono zenbakian eman dezakete izena, edo bestela Aizkardi elkartearen bertan. HITZA

honetarako. Izen-ematea, elkartearen bertan (Gudari 6. 943 65 27 89).

Berastegi. Gaztainondo elkarteak Garesera ibilaldia antolatu du urriaren 26an. Izen-ematea, elkartearen.

ERAKUSKETAK

Alegia. Rufino de Toro margolariaren lanak daude jubilatuen tabernan ikusgai.

Ibarra. San Bartolome jaietako argazki-erakusketa ikusi ahal izango da Benito Izagirre kultur etxean asteleheneetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 21:00etara bitarte.

Tolosa. Calcuta Ondoan elkarteak antolatutako erakusketa Errota Haur Liburutegian, 17:00etatik 20:00etara (asteburuetan ibita).

Villabona. *Emakume ikusezina* erakusketa Villabonako Gurea aretoan, Senegalgo emakumaren paperari buruz.

Tolosa. *Ipuinartean II* Ereite elkarte multikulturalaren erakusketa Aranburu Jauregian.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Tolosa. Ebebeste, JM. Gernikako Arbola, 3. 943 65 10 40.
Leitza. Campos, M. Elbarren, 52. 112.

▶ **HITZAk** ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker.
 Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza
agurren tartea



URTE ASKOAN
Iker Garmendia Ruiz de Egilaz (Baliarrain). Gaur bi urte. Muxu asko eta muxu asko familiaren partetik.



URTE ASKOAN
Julen Bereziartua Arruti (Baliarrain). Gaur bi urte. Muxu asko Baliarrain eta Adunako familiaren partetik.



URTE ASKOAN
Elena ta Asintxo (Amasa). (1982-10-16/2007-10-16). Beste 25 urte bezain ederrak izan daitezela hurrengoak. Zorionak Tehuixtla-ko (Morelos) senideen partetik.